



BARREN
TOKIKOM



Hemen dira santanak




Arotz lanetan **25 urte** baino gehiagoko eskarmentua daukagu. Ateak, horma-armairuak eta jantzigelak, lurra... neurrira egiten dugulan. Zuk eskatu behar duzun hori, eta gu zure beharretara egokituko gara. **Aroztegi artisaua** baita gurea, kalitate onena eta **diseinu berriuen** eskaintzen dituen.

Orain, gainera, etapa berri bati ekingo diogu. Merkatuan ezagunak diren altzari-egile onenekin hasi gara lanean, eta altzariez gain, **sofak eta logela nahiz egongeletarako bestelako osagarriak** ere eskaintzen ditugu. Zatoz aroztegi dugun erakusketa ikustera, eta egin zure aukera.

Arotz lanez gain, etxe-aldaketa zerbitzua ere eskaintzen dugu. Gure langileek profesionaltasun handienarekin garraiatuko dituzte zure altzari eta gainerakoak.



Azibar Iraolagoitia



Horretarako, **garabi berezi bat daukagu**, altzariak zuzenean kaletik etxeraino igo ahal izateko, portalean gora eta behera ibili beharrik gabe. Sentitzen genuen zerbait egin beharra, jakin badakigulako ohol zati handiekin atzera-aurrera ibiltzea enbarazugarri ere bazaiela bizilagun askori. **Garabi horri esker, 30 metroko altueraraino iristen gara** –bederatzigarren solairu bateraino—, eta horrek asko errazten du gure lana.

Eskatu behar duzun hori konpromisorik gabe, eta saiatuko gara erantzuten.



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9 - 20850 Mendara - Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com



Artisan aroztegia



Etxe-aldaketa zerbitzua



Salmenta eta baraketa



Eskarmentua eta kalitatea



JABI MUÑOZ

“Meloiondoko printzea izango nintzateke”

Kaixo, Rafa. Dagoenek irekita daukagu meloia; tori, hartu puska bat. Udako ekaitz baten lehenengo tximistargiarekin batera jaio nintzen. 6 urte, handitasun-delirioak eta plastikozko gorila besamotz bat neuzkan jaio nintzenez. Gorilak fular arroxka bat zeukan lepoan, eta gorila marikoia neukala pentsatzen nuen. Behin, ikastolan, maistrak ea nagusitan zer izan nahi nuen galdetu zidan.

–Nik, marikoia, nire gorila bezain marikoia. Nire amak marikoia deitzen zidan, eta hori entzutean bularra puztutzen zitzaidan harro-harro.

12 urterekin, entzuten nuen ia guztia gogoratzen nuela ohartu nintzen; eta entzuteari ekin nion. 16 urterekin nire lehenengo psikologoa ezagutu nuen; urtetan intentsitate baxuko depresio bat sufritu nuela esan zidan. Diagnostikorik txarrena izan zen, nire burua muturreko pertsonatzat izan baitut beti. Nola urtetan eta intentsitate baxukoa? Nik guztia handikerian bizi nahiko nuke, ona

eta baita txarra ere. Eta betaurrekodun tipo hark nire kaskarkeria egiaztatzen zidan. Berarengana joateari utzi behar izan nion.

Rafa, orain 40 urte dauzkatz, eta bai, bizitza entzutea izugarri gustatzen zait, bere ile-koipetsua laztantzea, bere orbainez betetako besaburuak miazkatzea; eta gehien gustatzen zaidana zera da: ez dudala ulertzea lortzen. Maiz gertatzen zait, gauean, ohe gainean arropa kentzen hasten naizenez, egunean zehar entzundakoeekin jolasten dudala, mozkorti batek bere buruaz barre egiten duen bezala, eta zorionsua naiz. Betidanik herri txiki batean bizi nahi izan dut, lehiu erraldoidun gaztelu batean, eleberri merke-zuhurrez beterikoan; meloiondo itzaltsu bat izango nuke.

Meloiondoko printzea izango nintzateke. Ba al dago akaso, zuhaitz eder baten itzalpean meloi bat jatea baino gauza horberik? Zer gerta daiteke? Denbora pasatzea, beste ezer gutxi. Rafa, beste meloi puskarik nahi?



RAFA FURNIER



“Asko laburbiltzen, orain Albaicineko auzo bateko ceutar euskalduna naiz”

Aurkeztea tokatzen zait. Gainera, suposatzen dut askorentzako sorpresa bat izango dela ni hemen aurkitzea; neuretzat ere bai. Ez dut nire aurkezpena laneko elkarrizketa batean bihurtu nahi. Ez dut nahi zehatz-mehatz nor naizen kontatu; zaila da norbere burua aurkeztea eta definitzea. Hainbeste aurpegi eta ahots... errazagoa da nor ez naizenetik abiatuta nire burua definitzea.

Naizen guzti horretatik hasiko banintz, nire familiaren etxeko lehiotik sartzen zen eta begiak itxita onartzen nuen argi izpi bat naiz; Ceutan tipikoa den *Volaor* arrain sikuaren zapore gazia ere banaiz, ileak arrotzen eta gaua hezetasunez betetzen duen Levanteko urruneko haizearen xuxurla... Gaur egun oraindik, eta nahiz eta denborak aurrera egin duen, Afrikako zati bat naiz.

Dibertsitate guzti honetan Granadako zaititxoa ere banaiz, eta bisitan joaten naizenez, Albaicineko kale estuetan isladatuta aurkitzen naiz; oraindik San Gregorio aldaparen pareta zu-

ritan nire itzala isladatzen da, 22 tabernaren mahai bat okupatzen dut; eta oraindik gai naiz Angel, Veronica... eta abarren barreen oihartzunak entzuteko. Gaur egun ere, Granadaren falta igartzen dut.

Eta orain, zer naiz ni? Kilimongo ur gardena; Mendaroko plazan Valen, Alaitz, Aingeru, Patxi, Miren, Amaia eta abarren laguntzaz ahitutako arratsaldeak; eta gehiago ere esango nuke: etzatera gonbidatzen duen belar orlegi freskoa; zeruak euria iragarri eta etsipenez onartzen ditugun neguko arratsaldeak, beste tragoxka bat edatera gonbidatzen nauen sagardoaren zapore mingotsa, Andran taldean bateriajole bezala ibili nintzanekoa (mila esker, lagunak!); Jone eta Ibonekin dudak adiskidetasun berezia; Jon Gurrutxagarekin nire lehenengo topaketak euskaraz; IMHn egon nintzenekoa; nire seme-alabak... eta Ainara.

Asko laburbiltzen, orain Albaicineko auzo bateko ceutar euskalduna naiz.



Oroitzapena, galtzaileen behar irauNtzailea

Gure jarrera geldo honek, niretzako, badu zergatia. Faxismoak Alemanian gerra galdu zuen, eta hemen, ordea, irabazi. Eta irabazleek inposatzen dute euren justizia, euren bizimodua, eta azkenik, gertatutakoarekiko bertsio ofiziala, "errelatoa": Historia liburuetan ikasiko dena.

*"Zapalduen oinordekoak
hasi dira, erantzuleak
epaitzeko berandu bada
ere, bake-alfonbra
azpian begiratzen"*

Galtzaileentzat, berriz, mendekua eta umilazioa hasieratik, eta gero, gertatutakoaren ahaztea, amnesia osoa. Hemen gertatu zena gerra ondoren, eta geroago,

"transizio" deitu zutenarekin. Horregatik, Faxisten ikurrak, jada, ohikoak bihurtu zaizkigu, ez digute minik egiten normaltasunaren parte diren aldetik. Hor daude, "betidanik".

Hain apalkuntza handia ezarri zieten, ezen agintari gaizkile handienak ere ez zitzaizkiela hain txarrak iruditzen; eta beti dago norbait esango duena frankismoak izan zuela, nolabait, bere alde ona. Eta frankistaren batek jendeari lagundu ere egin ziola, e.a. Hain beheramendu handia ezarri zieten, ezen galtzaileek, euren burua isiltasunera kondenatu zutela, hurrengo belaunaldiari (ia) ezer esan gabe.

Bada, azken urteetan hori aldatzen ari da, eta zapalduen oinordekoak hasi dira, erantzuleak epaitzeko berandu bada ere, bake-alfonbra haren azpian begiratzen. Hara hor gure elkartearen lana. Anamnesia, Platonek zioen bezala. Oroitzea beharrezkoa zaigulako, egia, justizia eta erreparazioaren izenean.

Badira bost urte antifaxista aleman batzuk Elgoibarrera etorri zirela Elgoibar 1936 elkartekoekin egon, eta oroitzapen historikoaren gaia nola jorratzen genuen ikustera.

Harrituta gelditu ziren, hemen, faxismoaren aurkako sentsibilitate handia daukagula sentitzen dugun herrialdean, normalizat ematen ditugun egoerak ikustean. "Alemanian, -esaten ziguten- pentsaezina litzateke kaleetan faxisten izenak eta ikurrak eta mendietan gurutze monumentalak onartzea".



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio, Leire Alberdi MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzurika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
1936-1938



BARREnek ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Haizea emakume taldetik eskerrak eman nahi dizkiogu Alcorta Forging Group enpresari, gizarte ekintza proiektuaren barruan hilean behin Kultur Etxean egiten dugun zine forum saiorako pastak eta kafea finantzatzeko diru-laguntza eman digulako. Mila esker

Haizea emakume taldea

► GARITANO IGARZA SENDIARI DOLUMINAK

Juan Mari Garitano Igarza hil da aste honetan, eta bere garaian Mendaro Elgoibartik eta Mutrikutik bereizteko sortu zen batzordeko kide izan zen herritar baten eskariz, Mendaroko Udalak doluminik sentituenak helarazi nahi diz-

kie hildakoaren senide eta lagunei, eta bide batez, eskerrak eman Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketarako diputatua izan zen garaian segregazio hura horren azkar eta instituzio guztien onespenerekin egin zedin egin zuen lan guztiagatik.

Gogorarazi nahi dugu Mendaro Elgoibartik eta Mutrikutik bereiztea ezohiko batzar batean adostu zutela Gipuzkoako Batzar Nagusietan 1982ko maiatzaren 21ean. Gipuzkoako Foru Aldundia bera izan zen aurrez Elgoibarko eta Mutrikuko udalerriek Garagartza eta Azpilgoeta auzoak bereizteko prozesua sustatu zuena. Halaxe sortu zen Mendaro herria, 1983ko apirilaren 25ean.

Mendaroko Udala


OHARRA:

Eskuarteetan duzuna izango da opor aurreko azken alea. Uztaileko azken bi asteak sanbartolomeetako ale berezia prestatzen emango ditugu, eta abuztuaren 23an jasoko duzue ale hori. Ordura arte, ondo pasa oporretan!

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datarren eskutitz argitaratuko.



San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 184

atzak taberna

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL: 943 744 457
ELGOIBAR

www.colchonerialagunak.com

Lagunak-en, beherapen handienak kalitate onenean
%25eko deskontuak gure ehunetan
Gainera, zure erosketak finantzatzen ditugu,
interesik gabe eta hiru urtera arte

TEMPUR

WALMART

terxy

Oihona
Ote gertatuzak

KEYTON
Masajadori besabuziak

MANA

Klub Teknologikoa jarriko du abian Elgoibarko Udalak zientziarekiko eta teknologiarekiko zaletasuna sustatzeko



Uda ostean haur eta nerabeentzako Klub Teknologikoa jarriko du martxan Elgoibarko Udalak, gaztetxoaren artean zientziarekiko eta teknologiarekiko zaletasuna piztu eta sustatzeko. Urrian jarriko dute martxan, eta interesatuek irailetik aurrera eman ahal izango dute izena. Nolanahi ere, ekimen honen inguruko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Elgoibarko Udalaren Berdintasun Sailaren helbide elektronikora (*berdintasuna@elgoibar.eus*) idatzi daitezke. Eskolaz kanpoko jardueren bidez burutuko den egitasmo honekin "aisialdi alternatiborako jarduera batekin gozatzeko" aukera eman nahi die Udalak herriko adingabeei. Haur eta nerabeek irudimena askatu ahal izango dute, robotikaren, bideo-jokoen diseinuaren, sakeleko telefonoentzako aplikazioen garapenaren edo animazio digitalen arloetan egingo dituzten proiektu zientifiko eta tekniko txikiei esker.

Jaiki taldea sortu dute gizarteko gaiak gazteen ikuspegitik aztertzeko



Elgoibarko gazte talde batek Jaiki taldea sortu du, inguratzen dituztenarekiko desadostasuna adierazi eta gizarteko arazoei gazte ikuspegitik erantzunez eraldaketaren ildoan martxan jartzeko. Etxebizitza, aisialdia, hezkuntza, hizkuntza... izango dira, besteak beste, ibilbide honetan jorratuko dituzten gaietako batzuk. Lehen mugari moduan feminismoari heltzea erabaki dute. Horretarako uztailaren 22rako feminismoa lantzeko tailer bat antolatu dute, 18:30etatik aurrera, Gaztetxean. Tailer irekia izango da, baina bere bidegarritasuna bermatzeko komeni da joango den jende kopurua aurrez jakitea. Hortaz, interesa izanez gero aurrez jakinarazteko eskatu dute antolatzaileek, *jaikielgoibar@gmail.com* helbidera idatzita.

Zapatu honetara aurreratu dute uztaileko feria

Elgoibarko Udalak astebetez aurreratu du hila-beteko azken zapatuan egin ohi den feria, eta beraz, bihar izango da. Feria berezia izango da, eta ohikoetan baino ekintza guxiago egongo dira. Hortaz, biharko protagonistak abereak izango dira. Aita Agirre plazan egingo dute ganadu erakusketa eta salmenta, eguerditik aurrera. Hilabete honetan ez dute haurrentzako tailerrik egingo, eta herriko harategietako eta baserrietako produktuekin eginiko pintxoak dastatzeko txosnarik ere ez da egongo. Era berean, bertako baserrietako produktak saltzeko postuak ere ez dituzte jarriko.

Uztailaren 24an amaituko da Gure Balioak sarirako hautagaiak aurkezteko epea

Debabarrenean gizarte balioen alorrean jardun duten norbanako edo erakundeen lana nabarmentzeko jarri zuen martxan Debegesak Gure Balioak saria. Edonork aurkeztu ditzake sarietarako hautagaiak. Uztailaren 24ra arte dago hautagaiak aurkezteko epea. Informazio gehiago aurkitu daitezke *www.gurebalioak.com* webgunean.

Uztailaren 27an bukatuko da Elgoibarko Izarraren Txiki Eguneko bazkarirako izena emateko epea

Elgoibarko Izarrak bazkaria antolatu du aurten ere Txiki Egunerako. Abuztuaren 25ean izango da, Sigmako aparkalekuan, eta aurtengoan berrikuntzak izango dira: 15:30etik aurrera hasiko dira bazkaria zerbitzen, koadrilak iritsi ahala. Hala ere, nahi duenak Mauxitxa txarangaren kalejira amaitu ostean joateko aukera ere badauka. Sigma jatetxeak prestatuko du bazkaria, eta menua hau izango da: entsaladilla errusiarra, masailak saltsan, izozkia, kafea eta txupittoa. Bazkalostea girotzeko zoro-zozketa eta spotykarakea antolatu dituzte. Elgoibarko Izarrako bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 17 euro.

Uztailaren 27ra arte dago izena emateko aukera. Bazkaritarako txartelak Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan egoitzan edo BARREN astekarian erosi daitezke, eta baita Internetez ere, www.elgoibarkoizarra.eus helbidean.



Arg.: Aitor

San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten etxeko txikienek barixakuan



Atxutxiamaiak antolatuta, San Fermin Txiki Eguna ospatu zuten joan zen barixakuan Elgoibarren. Etxeko txikiak txuriz jantzita eta zapi gorria lepoan jantzita irten ziren kalera, eta lruñean baleude bezala ospatu zuten goiza. Pregoia bota zuten lehenengo udaletxeko balkoitik, eta beharrezko beroketak egin ostean, zezenen aurretik egin zuten korrika. Kalegoen plazan hasi, eta San Bartolome kalea zeharkatu ostean, Errosario kaletik itzuli ziren berriz plazara. Indarrak berreskuratzeko txorizo pintxoak jan zituzten ondoren.

Gabi
jate^{ea}
Kalebarren plaza, z/g
Tel. 943 741 230

Aurten sanbartolomeetan bi menu aukeran
25€ menua eta 35€ menu berezia
Zatoz, eta aukeratu!

MH Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

IMHn FABRIKAZIOko ZIKLOA IKASTEKO AZKEN PLAZAK

Heziketa Zikloetan matrikulatzeko epea: uztailaren 21 arte.
Pare bat datu interesgarri:

- Fabrikazio Zikloa amaitu dutenek dagoeneko lanean dihardute.
- 2. mailara pasa diren ikasleen %64 Sistema Dualean daude, enpresak kontratatuta.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera 8:00-13:00 eta 14:30-17:30 / 943744132 telefonoa / www.imh.eus

Santanetan mozorrotzera deitu dute jai batzordetik

► Lurdes Rodriguez eta Amagoia Basurto

Aurten ere batzar irekia egin du Mendaroko Udalak santanetako egitaraua osatzeko eta batzar horietan parte hartu dutenetako bi dira Amagoia Basurto eta Lurdes Rodriguez.

♦ **laz mozorrotzera deitu zenuten jai batzordetik eta beste horrenbeste egin duzue aurten.**

Bai. laz nobedadea izan zen, eta egia da txupinazoko momentuan oso gutxi zirela txoni jantzita agertu zirenak, baina haiek ikusita, afalosterako animatu zen jende gehiago. Egia da iaz programak berak ere despistatu zuela jendea, *gala gaua* deitu ziotelako, berez txoni janzteko gaua zenari, baina horrek berak beste emozio bat ere eman zion kontuari. Koadrilen egunean, berriz, jendeak oso ondo erantzun zuen.

♦ **Pijama jantzita irtetera deitu duzue aurten.**

Aurtengoa erraza da oso, errazegia beharbada batzuentzat, baina jokoa ere ematen du pijama gauak. Irten zaitezke franelazko pijama bat jantzita, pikardias



Lurdes Rodriguez eta Amagoia Basurto, jai batzordekoak.

batekin, gantzontzilotan edo amonaren kamisoi zaharra jantzita. Oherako erro-pak janztea da kontua. Badakigu jendeari jaietan luzitzea gustatzen zaiola eta askok erreparoa izan dezaketela pijama garurako, baina kamisoi luze batekin edo praka motz batzuekin ere dotore asko jantzi daiteke bat. Gainera, zer esango dizugu ba! Lotarako arropak denok berdintzen gaitu!

♦ **Kanpaina egiten diharduzue. Zer harrera izan duzue?**

Gazte jendearen artean harrera ona izan dugu, eta uste dugu luzituko duela gure pijama gauak. Egia da jende bati ez zaiola batere gustatzen mozorrotzea, eta ulertzen dugu haiena, baina gu geu eguneroko mozorrotuko ginatete ahal izanez gero, beraz zer esango dizugu ba!. Hori bai, animatu nahiko genituzke denak. Ka-

lera irteteko zer jantzi ezinda ibili ordez, jantzi pijama eta aire bizkor plazara, eta gero, etxeratutakoan, zuzenean ohera!

♦ **Gaia erabakitzeke orduan erraz jarri zarete ados?**

Bai, bai. Algortan-edo egiten zutela jakin genuen eta bileran proposatu genuenean, berehala eman zuten denek baiezta. Asmoa, gainera, gaia urtero aldatzea da. Esan beharra daukagu, gainera, aurten gazteek eurek eskatu dutela mozorrotzeko deiari eustea, eta propio eurentzat den egunik ez dutenez egitarauan, eta guretzat beste balio bat duenez haien botoak, eutsi egin diogu. Ziur gaude koadrila gazteek erantzungo dutela bihar ere, baina deia herritar guztiei egin nahiko genieke. Mozorrotu daitezela eta irten daitezela kalera ondo pasatzera, jaiak herritarrek egiten dituztelako.



Ezkerrean, iazko txoni gauko irabazleak, Ainara Argoitia eta Alain Ulazia.



Gatibu taldearen kontzertua izango da bihar, Koadrilen Eguneko egitarauko ekitaldi nagusia

Ofizialki santanak hilaren 24ko txupinazoarekin hasiko badira ere, asteburu hau ere bete-betea dator Mendaron. Izan ere, eta azkeneko urteetako usadioari eutsiz, Koadrilen Eguna ospatuko dute bihar, jaietako egun nagusi bihurtu dena. Mozorro desfilearekin hasiko dute eguna, eguerdian, eta egunak ohiko osagaiak izango ditu: paella lehiaketa frontoian, herri bazkaria, kalejira Bizi-Poza txarangarekin, goitiberen txapelketa Azpilgoetako elizatik behera, eta gauean, kontzertuak. Aurtten, eta herriko jai batzordera batu diren gazteenen eskariz, moda-modan dagoen taldea ekarri du Udalak: Ga-



tibu, euskal rock musika taldea. Moonlight talde azkoitiarrak egingo dio bidea Gatiburi, 23:00etan hasita. Bi

kontzertuak bukatu ostean, DJa igoko da oholtzara eta goizaldera arte luzatuko da plazako musika saioa.

Euskal dantzen erakustaldia, haur danborrada, bi herri-bazkari, playback gaztea eta gehiago izango dira igandean, haurren eta adinekoen egunean



Umeen eta nagusien eguna izango da domeka, eta ohi legez Mendaroko trikitilari eskolako dantza saioa, gazte-txoentzako pintura lehiaketa, herri-bazkariak [Frontoian, umeena, eta Aizpe elkartean, adinekoena], umeen haur danborrada eta playback gaztea izango dira eguneko ekitaldi nagusiak. Eguerdian irtengo dira txikiak dantzara, eta 18:00etan hasiko da danborrada. Bizi-Poza txarangak lagunduta egingo dute hurrek frontoira arteko bidea, eta ondoren, etorriko da playback-a. Bukaeran, goizeko pintura lehiaketako sariak banatuko dituzte. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haur guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.



IRIONDO

www.iriondo.com

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!





Eukene Gurrutxaga, Nuria Ansuategi, Sabin Longarte, Agustin Lazarobaster, Izaskun Jauregi eta Irune Berasaluze.



Txupinazoa, txistuaren soinuak alaitua

Txistulariek hasiko dituzte aurten santanak, euri eman dietelako aurten txupinazoa botatzeko ardura. Eta pozik hartu dute eskaintza txistulariek, lehengoek eta oraingoek. Ohore bat izango dela aipatu dute denek aho batez, eta txistuari "merezi duen aitortza" egiteko ere balioko duela gaineratu. Era berean, pozik daude, uste dutelako euretako askoren maisu eta erreferente nagusi izan zen Agustin Berasaluze omentzeko ere balioko duela aurtengo txupinazoak.

- AINARA ARGOITIA -

Nek ez egongo da Euskal Herrian bere txikian Mendarok beste txistulari izan dituen herririk. Denen izenak hona ekartzea ere lana da, baita urteetan mundu horretan ibili diren mendarorarentzat eurentzat ere. Baina, bai, Mendarok ho-



Agustin Lazarobaster, Agustin Berasaluze eta Sabin Longarte.

renbeste txistulari eman izanak badu bere arrazoa. "Agustin Berasaluze zenari zor zaio hori", aitortu du Agustin Lazarobaster *Torrek*, solasaldia hasi eta bat. Torre bera izan zen, herritarren gomutan, Mendaroko lehen txistularia. Ordurako, Sabin Longarte saiaturaz Donostian erositako "txistu dotoreari" soinua ateratzen, baina moldatzen ez zela ikusita, danborra jotzen hasi zen. Harexi eskatutako txistuarekin hasi zen Torre bera 60ko hamarkada hasieran, eta elkarrekin jo izan zuten gero hainbat urtez, jaietan eta beste zenbait ospakizunetan. Dantzaria zen berez ordura arte Torre, baina hernia irato batek ezindua laga zuen dantzarako, eta plazatik guztiz baztertu aurretik, txistulari hastea erabaki zuen. "Jo, jote genuen guk biok zeozer, jaietan dena egiten delako errazago. Akordatzen naiz oraindik txistua joteko baino mozkorrago nengoela etxera erretiratu beharra izan nuen santana egunaz ere. Garbi esango dizut: nik neuk Agustini [Berasaluze] esker ikasi nuen txistua jotzen. Berak irakatsi zidan solfeo pixkat. Torrera etortzen zen bazkalostetan, eta hantxe entsegatzen genuen [Eraitsi zuten Torre baserria]". Eskopetagintzan aritzen ziren biak sasoi hartan, eta ondo ezagutzen zuten elkar. Bi-hiru urtez jo zuen Agustinek txistua, harik eta soldaduskara joateko

ordua iritsi zitzaion arte.

Agustin soldaduskara joan aurretioxan, baina, lau laguneko txistulari taldea ere izan zuen Mendarok. Agustin Berasaluze eta Gregorio Vives ere batu zitzaizkielako taldera Sabini eta Torreri. Atabala jotzen zuten Gregoriok eta Sabinekin, eta txistua bi Agustinek. Pedro Manuel Mendikute *bisuetenekoak* hartu zion gero lekukoa Agustin Torreri, eta Pedro Manuelen anaia Juantxo Mendikutek ordezkatu zuen Gregorio. Agustin Berasaluze zuten denek, baina, erreferentetzat. Hark zituen liburuak, hark zuen eskola gehien, eta harengandik ikasi zuten denek, bai bere sasoi-koek eta baita gerora etorriko ziren beste hainbatek ere. "Txistuaren arima izan zen Mendaron Agustin Berasaluze", dio Izaskun Jauregik. 1970. urte aldera hasi zen bera txistua jotzen. Beste askoren bidetik sartu zen txistuaren mundura: dantzari hasi eta txistulari bukatu. Elgoibarren ikasi zuen oinarri-oinarrizkoa, Antonio Azpiazu zenarekin, baina "ikasi, benetan ikasi" Berasaluzeren ondoan ikasi zuela aitortu du. "Sekulako maisua izan zen. Maisua baino gehiago, laguna zen, gertukoa. Gauza asko irakatsi zizkigun, oro har bizitzaz, eta oso maite genuen denok". Izaskun hasi zenean, Mendikute anaiek eta Agustin berak osatzen zuten Mendaroko talde ofiziala, "trantsizioko taldea", laster hasiko baitziren gazteak errenkadan taldera batzen. Ana Isabel Loiola eta Joseba Etxeberria ere Izaskunen sasoi beretsuan batu ziren taldera, eta Izaskunek laga ondorenean, 1975. urte buelta horretan,



Irupe Berasaluze, Nuria Ansuategi eta Inazio Salegi.





izugarritzko goraldia izan zuen txistuak Mendaron. Roke Landa, Joseba Longarte, Joseba Olazabal, Imanol Etxebarria, Alberto Larrañaga, Jose Manuel eta Iñaki Lazkano anaiak, Joseba Zulaika, Ana Landa, Sorkunde Zulaika, Itziar Olazabal, Javi Garate, Oscar Zubiaurre, Asier Landa, Inazio Salegi (atabala)... izugarritzko txistulari tropela osatu zuten, denak ere Agustín Berasaluzeren babesean. Tropel horretan sar genitzake Irune Berasaluze eta Nuria Ansuategi ere, gure gaurko protagonistetako beste bi, hurrengo belaunaldiaren arteko zubi-lana egin zuen talde txoko neskak [Inazio Salegi izan zuten hirugarren hanka urte askoan. Ataba jotzen zuen Salegik].

Irunek osaba zuen Agustín Berasaluze eta gogoan dauka hark oparitutako txistuarekin hasi zela bera, ó bat urtetxo zituela. "Akordatzen naiz ikurrina legezatu zuten urtea zela", dio. 1977ko urtarrilaren 17an legezatu zuten ikurrina, eta Mendaron ere ospatu zuten legezatzeari, jakina. "Aitor Etxebarriak eraman zuen ikurrina, eta geuk ere parte hartu genuen kalejira hartan, txistua joaz. Beste behin Elgoibarrera ere eraman ninduten. Playback-a edo egingo nuen nik, baina han joan nintzen neu ere, ume-umea", oroitu du Irunek. Txistularien urrezko urteak izan ziren haiek. Herriko ospakizunetan ez ezik kanpora ere irten izan ziren txistua jotzera Mendaroko gazteak dantza taldekoekin batera. "Elgoibarko sarasuarrekin ere jo izan genuen. Haiek ziren hemen bueltako maisuak", gogoratu du Nuriak. Solfeoa monjen eskoletan ikasitako gazteak ziren denak, txistuan Berasaluze zenaren eskutik hasi zirenak.

Baina zer diren gauzak, batzuk ikasketekin lanpetuegi zeudelako, beste batzuk herria utzi zutelako eta batez ere dantzarien taldea ere jendez urritzen hasi zelako txistularien talde hura ere hasi zen txikitzen eta txikitzen, ia-ia desagertzeraino. Irunek, Nuriak eta Inazio Salegi atabal joleak eutsi zioten azken-azkenera

MENDAROKO TXISTULARIAK 1960-2015

- | | |
|-------------------------------|----------------------------|
| - Sabin Longarte (atabala) | - Nuria Ansuategi |
| - Agustín Lazarobaster | - Asier Landa |
| - Agustín Berasaluze | - Inazio Salegi (atabala) |
| - Gregorio Vives (atabala) | - Josu Motriko |
| - Pedro eta Juantxo Mendikute | - Jon Zuloaga |
| - Izaskun Jauregi | - Eñaut Berasaluze |
| - Ana Isabel Loiola | - Andoni Zulaika |
| - Joseba Etxebarria | - Ander Zulaika |
| - Roke Landa | - Ibai Idoeta (atabala) |
| - Jose Manuel Lazkano | - Eukene Gurrutxaga |
| - Iñaki Lazkano | - Ainhoa Olazabal |
| - Alberto Larrañaga | - Naiara Eizagirre |
| - Joseba Longarte | - Oihana Lizarralde |
| - Joseba Olazabal | - Aitor Larrañaga |
| - Imanol Etxebarria | - Mirari Egaña |
| - Itziar Olazabal | - Nerea Zubierrementeria |
| - Joseba Zulaika | - Uxue Ansorregi (atabala) |
| - Ana Landa | - Josune Manteca |
| - Sorkunde Zulaika | - Iratxe Egaña |
| - Irune Berasaluze | - Nora Rubio |
| - Arantxa Zubiaurre | - Ane Rubio |
| - Oscar Zubiaurre | - Maria Fraile |
| - Javi Garate | - Ainhoa Garcia |
| | - Lucia Duran |

arte, eta eurek osatu zuten hurrengo belaunaldiarekiko zubi. "Trinitateetan, Errege Magoen kabalgata egunean, Olentzeroren egunean, eta jaietan ere jotzen genuen, hirurok batzuetan eta Inazio eta biok azken aldera, Irune Bilbora joan zelako ikastera", oroitu du Nuriak.

LANARI AITORTZA

Zerrendatzeko baino esperientzia eta anekdota gehiago pilatu zituzten urte horietan, baina egun bat bereziki gogoan du Nuriak:

EGUNEKO ZENTROA

ZUREKIN, S.L.



Maria Luisa Fernandez
Nuria Ansuategi
Fidel Ambrona

Azpilgoeta, 32 Tel.: 943 031 746
20850 Mendara e-posta: zurekin@euskalnet.net

iparelek^{s.l.}

elekttrizitatea

Tel.: 943 530 356
688 674 242
659 934 964

- * Instalazio elektrikoak
- * Mantenimendu industrialak
- * Automatismoak
- * Sare informatikoak

iparelek@gmail.com

aitz beltz

ndo
pasa
jaixetan!

Tel.: 943 254 749
Mendarozabal, 13 - 20850 Mendara

Iratxe Egaña, Nora Rubio, Josune Manteca eta Ana Rubio.



txistulariek aurrenekoz soldata txiki bat jaso zutenekoa. "Nati Irurtia Kultura zinegotzi izendatu zuten urtea izango zen. Ez zen gauza handia izango, baina jaso genuen lehenengo dirutxoia izan zen, guretzat gauza handia. Gure lanari errekonozimendua izan zen". Errekonozimendua eta aitortza. Txistulariek horixe falta dutelako sarri, Iruneren ustez. Horregatik estimatzen dute horrenbeste aurtengo santanetan txupinazoa botatzeko ohorea eman izana. "Jaietako ezinbesteko osagaia izan da beti txistua, baina oso gutxi baloratu izan da txistulariek betetzen duten funtzioa eta egiten duten lana", nabarmendu du horren harira Irunek. Eta baietz diote gainerako solaskideek buruarekin. Merezi dutela txistulariek aitortza bat eta eskertzen dutela Udalak eta jai batzordekoek egindako keinua. Egun berezia izango dela aitortu dute guztiek. Pena bat badute, hala ere, Izaskunek eta Nuriak. Agustín Berasaluze bizi zela omenaldirik egin eza. Horregatik, aurtengo txupinazoa hari gorazarre egiteko baliatu nahi dute, besteak beste. "Merezi zuelako. Herri honen alde asko egin zuen gizona izan zen, eta nik neuk behintzat oso gogoan izango dut txupinazoko unean", esan du Nuriak. Bat datoz gainerakoak ere. Berasaluzez gain, lan kontuengatik egun horretan udaletxeko balkoian egon ezingo diren txistulariak oroitu ditu segidan Izaskunek: "Seguru Mirari Egaña eta Nerea Zubierrementeriak ere nahiko luketela egon, baina zorritzarrez ezingo dute. Gure ondoan sentiituko ditugu, baina".

BELAUNALDI GAZTEA

Nuriak, Irunek eta Inaziok azkenera arte eutsi zioten, eta Irune txistua irakasten ere jardun zen aldi batez herriko lau mutil koskorri: Jon Zuloaga, Josu Motriko, Eñaut Berasaluze eta Ander Zulaika. Ordurako, baina, dantza taldea deseginda zegoen Mendaron, eta harekin batera txistua ere indarra galtzen hasia zen sasoi batetik. Nola edo hala, Mendarok izan zuen aberastasun hori berreskuratu beharra ikusi zuen herrian taldetxo batek, eta ekin zioten lanari. 90eko hamarkada hasiera zen. Halaxe, guraso batzuen ekimenez, dantza taldea sortu zuten atzera, eta hark txistuaren hauspotzea ekarri zuen. Joseba Etxeberria, Maite Txurruka eta Juan Carlos Urbizu herritarrak aritu ziren dantza erakusten, eta txistuko irakaslea ere ekarri zuten. Mutrikutik ekarri zuten irakaslea,

momentu hartan herrian ez zutelako txistua irakasteko inor topatu –tituludunik ez behintzat–, eta loratu ziren txistulari gazteak. Izaskun Jauregi bera ere gehitu zen berriro taldera, eta bera izan da azkeneko urteotan musika eskolaren bueltan hazitako belau-naldi gazte horren erreferentea, gazteek eurek hala aitortuta.

ORAINA ETA ETORKIZUNA

Azkeneko hamar-hamabost bat urtean hogeitik gora txistulari eman ditu Mendarok, baina gaur, lau lagunek osatzen dute txistularien azken katebegia. Eta azkena diogu, gaur gaurkoz, ez datorrelako beste inor atzetik. Iratxe Egaña, Josune Manteca, Nora Rubio eta Ane Rubio dira, 19-20 urteko neskek, musika eskolan sortu eta hazitako txistulariak. Ilusioz hartu dute eurek ere aurtengo txupinazoa botatzeko egin dieten eskaintza. "Poza ematen du gurekin akordatu izana", aitortu du Josune Mantecak, eta bat datoz gainerakoak ere. Txistua bera gutxietsita egon den instrumentua dela adierazi dute eta txistulariek merezi zutela aitortza bat. "Egitarauan beti sartzen dute txistularien kalejira. Egon behar den zerbait da, baina guregana sekula ez dira etortzen ahal dugun galdetzerara ere", gehitu du Norak. Goizean goiz irteten dira kalera jaietan, eta tokatu izan zaie noiz-bait eurek paretik pasatzean jendeak leihoak ixtea ere, baina onartuta dute hori dela dutena. "Inor ez da etortzen gure atzetik kalejiran ere. Askotan entsegatzeko ere baliatzen ditugu kalejira horiek", esan du Josunek. Gazteak dira, parrandarako sasoirik onena dute, eta bistakoa dena aitortu dute: beti ez dela erraza txistulariaren egitekoa, are gutxiago jaietan. Gustura egiten dute, hala ere, kalera goiz irteteak aukera ematen dielako jai egunez ere bizitzeko. "Bestela ni neuz igoko nintzen Santa Anara, adibidez". Esan beharrik ez dago tokatu izan zaiela lo askorik egin gabe kalejiran irtetea, eta behin edo behin, izan da taldean hitzordura berandu eta txistua ahaztuta agertu izan denik ere. Sekula ahaztuko ez dituzten esperientziak dira, eta nahi lukete beste batzuk ere bizitzea. "Pena da gure atzetik beste inor ez datorrela ikustea, gerta daitekeelako guk ere kanpora irten behar izatea ikastera edo lanera, eta Mendarok txistularirik gabe gelditzea.



USATORRE

Taberna

San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99

ONDO
PASA
JAIETAN!

morroskillo

Liburuak, bitxiak, opariak...

Tel.: 943 033 631
Faxa: 943 755 235
E-posta: morroskillo@hotmail.com
Herriko Enparantza, 18
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

ONDO PASA JAIETAN!

AUTOZERBITZUA

ELKAR

COVIRAN



Kilimon Hiribidea, 5 behea - 20850 MENDARO
Tel.: 943 530 072 - Faxa: 943 530 073

m mendaro ikastola

Kilimon, 2
Tel.: 943 756 141



MENDARO
IKASTOLAKO
TXOKOLOREN
PARTEZ ONDO
PASA JAIETAN!



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
ONCra AUTOMATIZAZIOA.
ERREMINTA MAKINA BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industriakdea SE-5 • 20850 Mendaro (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 858 / 039 710 183 • Faxa: 943 742 348
www.santosypatxi.com • comercial@santosypatxi.com

Arriola Aroztegia

Garagartza kalea, 44
Telf.: 629 258 172
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
perosanz@euskalnet.net

Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 268
Faxa: 943 208 045
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
Faxa: 943 031 718
20850 MENDARO

UZZTAR


UZZTARGI KAFETEGIA
Herriko Enparantza, 8 - Mendaro
Tel.: 943 030 150

 Uzztargi Kafe



**M
E
N
D
A
R
O**

Ondo pasa jaietan!



Tel.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55

LEIRE JANTZIDENDA
 Azpilgoeta, 24
 MENDARO
 Tel.: 943 033 629
 leirejantzendenda@outlook.com

leire.jantzendenda

TAXI

Kontxi Urain MENDARO

Mobila:
607 575 728




*Mendaroko Udalak
Santana zorionsuak opa dizkizue.*

TELLABIDE
ITURGINTZA

Ondo pasa jaietan!

Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak

Mendaron zein
Elgoibarren
ematen dugu
zerbitzua



Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

lagun betikoak

OGITARTEKOAK - RAZIOAK - HANBURGESAK

Herriko anparantza, 14
Tel.: 943 755 024
20850 MENDARO



LANDA
ERRETEGIA

Ondo pasatu jaietan!!



Garagartza, 32 · MENDARO
☎ 943 75 60 28



Santanetako bi izar

Enekoitz Lazarobaster MENDARO, 1979

◆ Jaietarako prest?

Bai! Zain, zain, Santana gunaren zain egoten naiz ni. Hori kentzen badidazu, akabo santanak! Santa Anara ahal den moduan igo, hango aurpegiak ikusi, jai-giroan kalera jaitsi, bertsolari eta trikitilariekin herriko taberna guztiak pasatu... ikaragarria da! Oilo-ipurdia eta dena jartzen zait, begira! Nik neuk, nire akorduan, sekula ez dut galdu Santana egun bat eta ezta galduko ere! Horregatik iruditzen zait errespetu osoa zor diogula egun horri eta egin beharko genukeela ahalegina egun horrek eskatzen duen moduan jantzeko: zuriz eta zapi berdea lepoan lotuta. Pago barik gogor doa kontua, hori bai, han goian. Pinu zaharren bat bada ere jarri beharko genuke, itzal pixkat egiteko.

◆ Euskal selekzioko kamiseta berdea erretiratu beharko zenuke ba zeuk ere orduan!

Aurpegi txarreko egoten naiz ni egun horretan eta berdea jantzi behar, bai, bezperako garagardo denek zuritutako aurpegiari bizitasun pixkat emateko. Aurten, baina, zuriz!

◆ Danborradan ere, estreinakoz iaz zu zuriz!

Ni han ere trajez! Danborrada sakratua da. Ama azpeitiarra izanda, ume-umetatik bizi izan dudak zerbait izan da. Umetan, San Sebastian eguna jai hartzen nuen beti nik eskolan. Bizi dut nik danborrada eguna. Behin, laneko kontuengatik, justu-justu allelatu nintzen. Danborradakoak frontoira sartzen eta ni orduantxe Mexikotik Mendarora iristen.

◆ Playbackeko izarra izan zara urteetan. Tricicle taldearen eskaintzaren bat iritsiko zitzazun honezkerok, ala?

Eneee! Zelan egin pentsatzen egongo dira! Itzelak dira. Antzezteka izugarri gustatzen zait eta tonto plantak egitea ere bai. Bestela ere bagara gu teatrero xamarrek eta ez gara gaizki moldatzen, ez. Prestakuntza handirik gabe irten izan gara gu oholtzara. Egunean bertan pentsatu eta egin! Hori bai, ez naiz ni neu entsegatu gabe irten zalea. Gauzak egitekotan, ondo egin behar dira, gusto pixkatekin. Eta ez horrenbeste irabazteko, orain hiru urteko dirua gastatu gabe daukagulako guk oraindik! Estreinako playback-ean *streaptas* bat egin genuen Alex Aranberrik, Aitor Oñederrak eta hirurok. Orain egingo bagenu.... arrakasta totala, seguru.

◆ 'Biluzte' horrek eman dizu osperik bai.

Pardel hutsarekin irten ginen beste behin, Triciclerena egiten, eta hasi orduko barrezka zen jendea plazan!

◆ Gau eta egun bizi dituzu jaiak. Zelan egiten da hori?

Gure amak beti esaten zigun gauzez ibiltzeko gaitasuna zuek egunez erantzutekoa ere izan behar zuela; eguna ezin zela galdu. Eta oraindik kapazidade pixkat badaukagunez... Hori bai,



hemen urte guztiko entrenamendua dago horren atzean ere! Txapeldunen Liga jokatzeko, ligan erregularra izan behar da, eta hemen ere, urte guztiko txikiteoa dago. Santanetan fin egoteko, han eta hemengo jaietan ibili behar da, gorputza zailtzeko. Luzaro egon naiz kanpoan, baina han ere ez diot entrenatzeari laga. Txakalaldirik izango ez bada, egunero-egunero egin behar da lan.

◆ Jaiak hasterako prestakuntza berezirik egiten duzu?

Prest nago ni beti jaietarako. Hori bai, jaiak hasterako gure etxeko izozkailuan akuarius latak *a tuti plé* izaten dira. Horretan, eta itxuragabe jatean dago hemen sekretua. Kaja eta erdi bat garagardo jausiko dira eguneko, amaren aurrean gehiago ez esatearren, eta prestatu beharra dago.

◆ Santa Anan zerbitzen, danbor jole ofiziala urteetan eta iaz kupeljole nagusi ere bai, playback-eko izarra, koadrilen eguneko paella lehiaketako epaimahaikide, goitibeheretan urtero aurrean... Andoni Egañak ere urtero botatzen dizkizu bertso bat edo beste. Txupinazoa botatzea bakarrik falta zaizu!



Egañak bertsoa? Sarriegi gauza onerako. Epaimahakide izatearena, berri... Nik uste dut konturatu direla jan-edanean gustura aritzen garela eta horrexegatik aukeratu gaituztela. Ondo jatea beti gustatu izan zait, baina lan kontuengatik kanpoan egin ditudan egonaldietan jateko eskastxoagoak jaten ere ohitu naiz, eta beraz, lasai, gazteak! Probatuko ditut nik zuenak ere! Goitibererei buruz zer esango dizut ba! Inoiz ikusi al duzu goitiberera bat zaldiarena egiten? Ba iaz guk egin genuen hori ere. Han ere puntuatu genuen.

Txupinazoa botatzea, edonola ere, itzela izango litzateke. *Terriblea!* Gure ume sasoiaren udaletxea San Josen egon zen eta lokal hark ez zeukan balkoirik. Zenbat sufritzen nuen nik orduan!. Esan ere egin izan nion Anton Zubiaurreri, Mendarok balkoidun udaletxea behar zuela, txupinazoa benetakoa izango bazen! Etxafuego batzuk botatzen zituzten bazterren baten tablero zaharrek, baina hori ez zen itxurazkoa ere, eta udaletxea egin zutenean... ai!, orduan bai! Nik hartu nuen gozatua! Txupinazoa botatzea zer izango zen? Niretzat *izugarria* izango zen hori.

“Txapeldunen Ligan jokatzeko ligan errenditu behar da. Hemen ere urte osoko txikiteoa dago atzean”

Etxeko egongelan esegitzeko koadroa izango zen hori, betiko gordetzeko argazkia. Niretzat txupinazoko momentua handia izaten da edonon. Azpeitin ere, San Inazio bezperan beti izaten nintzen ni hantxe, plazan.

Jaietako oroitzapen onen bat bai?

Asko, denak ez esatearren. Zezenei lotutakoak dauzkat nik oroitzapen politenak. Garagartzan, zezena gabez atera zuten urte batean, Ramon Lazkano eta gure aita zezenarengandik ihesi zebiltzan batean, gure aita han jausi zen Abarketeroneko aurrean, portzura, lokatsetara. Han irten zen zapatila beltz-beltzekin. Handik Txirristaka tabernara etorri ginen zuzenean eta Juanjok [tabernariak] ontzi-garbigailuan garbitu zizkion zapatilak! Zuri-zuri irten ziren!

Egitarauan zerbait kendu edo gehituko zenuke?

Ez kendu eta ezta gehitu ere nik, antolatzen ibili direnek ahal zuten ondoen egingo zuten-eta! Antolatutako gauzetan parte hartzeko eskatuko nioke nik jendeari. Aldatzen ari da hemen dena, hemen eta leku guztietan. Jendeak ez du lehen beste parte hartzen. ‘Antolatu ditzatela jai onak’ dio jendeak, baina ahaztu egiten zaie jendeak egiten dituela handi jaiak, egitarauak beharrean.

Juanmi Arriola MENDARO, 1964

◆ Txapeldunen Ligan jokatzeko ligan erregularra izan behar ei da lehenengo. Sasoi iristen zarete jaietara?

Itxuroso ibili gara, eta ilusioz gaude. 50 urte izan arren, 20-25ekoen ligan ere moldatzen gara gu!. Sasoi gaude, bai. Jaietan gozatu nahi duenak bizi egin behar ditu, aktiboki parte hartuz, eta aurten ere, onena emateko prest gaude gu. Ikusten nauzu bizarrarekin, ezta? Ba hau ere jaietarako laga dut!

◆ Zuen koadrilak beti eman du ikuskizuna jaietan, lehen eta orain.

Beti ibili gara gu barruan eta... Jaiak itzel gustatzen zaizkit, baina herrikoak. Ibili naiz sanferminetan eta beste mila jaitan, baina herrikoak baino hoberik ez dut inon topatu. Gazte, zahar... denok elkarrekin ibiltzen gara hemen, eta lau trago hartutakoan, nahita ere ezin izaten da ezezagunik topatu! Anekdotka batzuk baditugu, bai, baina hemen kontatzeko modukoak... Garagartza zaharrean egoten zen hemen ikuskizuna, zezenean. Orduan jakinekoa zen zirkoa sortuko zela!. Han egoten ginen denok erreka ondoan, petrilaren kontra, zezena noiz etorriko zain erreka salto egiteko. Han sortzen zirenak bai zirela bideoan jasotzekoak! Jendetza etortzen zen kanpotik ere. Jaietako azken egunean erreka barrutik joaten ginen kalejiran ere. Turuteroen garaiko kontuak eta txaranga sortu genuenekoak ere oroitzapen onak dira. Erritmoa zer den ere ez dakit, gorreria apur bat ere badaukat, eta solfeoaz





umetan On Enrike abadeari ikasitako apurra dakit, justu-justu sol klabea zer den, baina behin pentsatu genuen errekupe-ratu behar genituela gure aurreko batzuek erabili zituzten turuta zaharrak eta irten behar genuela haiekin. Tuneatu nuen nik etxean turuta zaharra eta jaitsi ginen Gaupasatik Garagartzako plazara, erromeria bukatu zen ordurako. Sekulako kalejira sortu genuen. Bi-hiru urtean ibili ginen gisa hartara. Mendarozabalgo zezenketetan ere jo izan genuen turuta. Tribuna bat eraiki genuen, ohol zaharrekin eta abar, eta han ibili genuen txerrikeria! Gaseosa, irina... zer zen hura! Durtan sartu eta orduerdian urpean egonda ere kentzen ez zena erabili genuen gainean!

♦ **Marka da bere burua erritmorik gabekotzat duena topatzea txarangaren sorrerako talde hartan ere!**

Egin genuen hori ere! Turutekin ibili ginen bi-hiru urtean eta gutako norbaiti bururatu zitzaion txaranga sortu behar genuela. Guk ibili genituen onak instrumentuak-eta erosteko! Arrasatera joan ginen San Pedro egun batez instrumentuak erostera eta handik Gasteizko punta-puntako denda batera ere iritsi ginen gero instrumentu bila, eta zera, han sekulako bazkaria egin eta bueltatu ginen, hutsik. Instrumentu txino batzuk erosi genituen gero, eta hasi ginen. Nuria Ansuategik erakutsi zizkigun nota batzuk-edo, eta aurrera! Santana egun batez egin genuen debuta, egitarautik kanpora jakina. Beti izan gara anarkiko xamarrak! Jendea Santa Anatik jaitsi zain egon ginen Gurelanen eta sekulako kalejira inprobisatu genuen. Totala izan zen.

♦ **Playbackean ere txalo ugari jasotakoak zarete, eta berdin gotibehera jaitsieran.**

Bai, orain bi urte. Barricadaren *No hay tregua* aukeratu genuen. Fin genbiltzan egun hartan ere, eta berotu ginen afalorduan. Bi peluka hartu, jantzi zeozer, Josemin garajea makil batzuk hartu, kartoiarekin gitarra moduko batzuk egin, eta gora! Espontaneo bat ere batu zitzaigun eta egin genuen zirkoa. Goitibeheren inguruan ere badaukagu guk anekdota bat, orain lau urtekoa. Javi Vecina berotu zitzaigun eta han etorri zen geuk ere egin behar genuela esanez, baina ez zegoen ezertarako egunik. Berak segi, baina. Eta jaietako lehen egunean, gauera arte ezer ez zegoela eta, han etorri zen tailerrera ohol zaharrekin. Egundua eman genuen hantxe Imanol Bastidak, Javik eta hirurok, txikiteorako ere astirik hartu gabe. Moldatu genuen zerbait afalordurako eta pentsatu genuen Gaupasan behera probatzea. Hasten gara jaisten eta zera: Alkortakoa behetik gora Terrenoarekin. Hura ostiakoa hartu genuena, baztarraren kontra. Eskerrak probatzea bururatu eta goitibehera zisko egin genuen, bestela eramango genuen norbait aurrean Azpilgoetan behera! Guk sortu behar genuen han zirkoa irten izan baginen! Beldurtzekoa!

*"50 urte izan arren,
20-25 urtekoen ligan
ere moldatzen gara
gu. Sasoiko gaude,
bai, jaietarako"*

♦ **Zein da zure egunik gustukuena? Zer eboluzio izan dute jaiak azken urteetan?**

Santana eguna izugarria da, baina lehenengo eguna... Jendea fresko egoten da eta lehenengo bi tragoekin etortzen gara gora, eta izugarria izaten da. Santana eguna asko aldatu da urteekin, baina. Gaztetu egin da. Patroia beti izan da Santa Ana, baina lehen edadekoek ospatzen zuten gehiago. Lau katu ginen

bezperan gau-pasa usainean ibiltzen ginena. Arboletan bertso bazkaria egiten zuten orduan eta urte baten bururatu zitzaigun geuri ere haraxe joateal!

Bat eta azkena!. Bertsoak entzuteraz joaten zen hara jendea, eta gu han ere ezin isilik egon. Adar pixkat ere jo genien bertsolariei, eta *txinatu* zitzaigun Eguzkitze. Orain, gazte jendea zaindu egiten da egun horretan fresko xamar egoteko. Beste behin, apustua egin zigun Andoni Egaña bertsolariak ezetz hamabi lagun sartu telefono kabinan. Txakolin botila jokatu genuen, eta hantxe, sartu ginen puzzle bat eginda! Jabi sartu genuen azkena, sabaiaren kontra. Santana eguna gora zetorren garaian izan zen hori. Handia da benetan Andoni Egaña!

♦ **Koadrilen eguna ere hazi da ba.**

Bai. 50 urte betetakook paella lehiaketarako izena ematea itxuragarri izango ote zen pentsatzen ere jardun genuen guk, baina ematea erabaki genuen, jendeak ikus dezan denok dugula lekua jaietan. Gu ez gara batzarrera joaten, jakina; eurei laga behar zaie hori. 25 urte genituenegazteagoek zaharrak ginela esan ziguten eta huraxe izan zen batzar batera joan ginen azken aldia.

**LUZAIDE
JATETXEA**

Mendarozabal z/g
Mendaro
Tel.: 943 756 166

XUMUXUA
Jatetxeak

Lasaitze

Goizane Elorza Barrutia
Osteopata D.O.

Kilimon etorbidea, 3
Tel.: 943 755 194
615 782 047
20850 Mendaro
Gipuzkoa

www.lasaitzegabineteosteopatia.com

TXIRRISTAKA TABERNA



MENDAROZABAL I - MENDARO

TEL: 943 756 139



ONDO PASA SANTANETANI!



Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 75 60 44
Faxa: 943 75 60 37
Mugikorra: 659 334 323
E-mail: pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

PAGOERROTA ITURGINTZA

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

**Ondo
pasa
jaijetan!**



Ondo pasa-jaijetan!



Mendaroko
Haurreskola

Garagartza, 5
943 755 219



Haurreskolak



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



San Pedroko mahaiak garbi laga behar dira: "Horrela aurkitu genuen San Pedroko mahaiak orain dela pare bat asteburu. Ez dago eskubiderik. Hau horrela utzi zutenek jakin dezatela hurrengo itzultzen direnerako dena garbi egongo dela".

Plaza Txikiko argi asko ez dira pizten: "Plaza Txikiko lurrean argi txiki batzuk daude, eta horietako asko ez dira pizten. Seitik lau daude hondatuta. Eskertuko genuke argi horiek konpontzea. Eskerrik asko".

Mendaroko Azpilgoeta auzoko autobus geltokia oso arriskutsua da: "Mendarotik Debarako norabidean autobusa errepidean bertan geratzen da, eta herritarrek bidea gurutzatu behar izaten dute, herrigunera sartzeko. Ez dago markesinarik ere autobus geltokia dela adierazteko, eta autobusaren zain egoten garenean ere, autoak gertu-gertu pasatzen zaizkigu. Irtenbide bat behar dugula uste dugu".



MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Karpo eta berrilo eskiltara
Zolak ezarria
Lakadura eguzi aluminio, PVC,
Pretara onaketa.

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570

GRUPO
DIALUMIN

Makina erremintan dihardun DOIMAK S.A. enpresa elgoibartarrak honako lanpostua betetzeko deialdia egin du:

Doimak

- PRODUKZIO-ARDURADUNA BEHAR DA. EKOIZPENAREN ETA AZPIKONTRATEN GAINEKO ARDURA IZANGO DU, ETA BI ALOR HORIETAN ESKARMENTUDUNA IZATEA BALORATUKO DA.

Interesdunek bidali zuen curriculumak cblanco@doimak.es helbide elektronikora edo deitu 617 432 401 telefono zenbakira (Tomas)

HURRENGO ERAIKUNTZA

UZTARRI ETXEAK

11 kalitatezko etxebizitzak Elgoibarren

Etxebizitza erabilgarri eta erosoak, zentzuzko prezioan


Kokapen ezin hobean: herrigunetik 5 minutura oinez eta zerbitzu guztiak eskugarai. Elgoibarko Santa Klara kalea, 11 zenbakian.

- 90 eta 60 metro koadroko etxeak (2 eta 3 logeladunak)
- Terraza zabalak eta orientazio egokiarekin
- Trastelekua barne eta aparkalekua aukeran
- Sukalde, jangela eta egongelarekin loturiko terraza
- Sukalde hornitua eta horma-armairuak

Zure beharretara antolatutako etxebizitzak dira, eta kalitate goreneko materialekin egindakoak.

2 LOGELA 120.000tik AURRERA

3 LOGELA 227.000tik AURRERA



Salmenta:

943 741 528

www.bikun-eraikuntzak.com

Finantziaketa:





TXIKI EGUNEKO BAZKARIA ELGOIBARKO IZARRAREKIN

15:30etik aurrera, jendea etorri ahala hasiko gara bazkaria ematen Sigmako aparkalekuan

MENUA:

- Entsaladilla errusiarra
- Masailak saltsan
- Izozkia
- Kafea eta txupittoa (edariak: ura, sagardoa eta ardoa)

15€

Elgoibarko Izarrako bazkideek

17€

Bazkide ez direnek

Trago luzeak: 3,50€

Zero-zozketa

Spotykaraokea

Izenematea eta txartelak **Elgoibarko Izarran** eta **BARRENen**. Txartelak online erosteko aukera, www.elgoibarkoizarra.eus-en. Azken eguna: uztailak 27



ELGOIBARKO IZARRA
Euzkaltzaleen Espetzeria

w w w . h a m a i k a . e u s

GURE BEGIZ IKUSTEKO

DEBABARRENA

Sintonizatu
34. kanalean

Hamaika
telebista

EDESA HOME F211 2 ateko hozkailua

221 Litro
Atariak lekuak aldatzeko aukera
144 x 55,5 x 99,9 cm

A+

%20ko aurreperio konburtasun

229

LED 32" HISENSE LHD32D36EU



Marka ofiziala

Zatoz eta jaso
udako katalogoa.

Dendako prezioak.
Agortu arte.



MILAR BIRE

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milar.es

Kubako eta Zeelanda Berriko doinuak ekarriko ditu Nazioarteko Folklore jaialdiak, uztailaren 24an

Haritz euskal dantzari taldeak antolatuta, Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da Elgoibarren gaur zortzi, eta ekimen horri esker, munduko beste herrialde batzuetako dantzak eta musika ezagutzeko aukera izango dugu. Aurten Kubako eta Zelanda Berriko folklorea ekarriko digute Elgoibarrera. Nazioarteko musika eta dantzeekin batera, Elgoibarko Haritz dantza taldeak ere hartuko du parte. Jaialdia 22:30ean izango da, Olaizaga kiroldegian. Sarrera doan izango da.

Camagua (Kuba)

Kubako Camagua taldea 2011n sortu zen, 1981ean Fernando Medranok sortutako Maraguán elkartetik, izan ere, elkarte hartan aritzen ziren gaur egun Camaguan dauden musikari eta dantzari gehienak.

Camagua taldeak Kubako doinu tropikala Afrikako ekarpenekin uztartzen du. Irribarre zabalak, eta bereziki, Karibeko tradizioan murgiltzeko aukera eskainiko digute, ikusi eta entzutekoak izango diren doinuekin



Nga uri te Wai-o-taiki (Zeelanda Berria)

Zeelanda Berriko talde maoriarrak bere herrialdeko kultura eta tradizioak ezagurazten ditu dantzaren bidez. Lurrarekin lotura handia du taldeak: taldekide gehienak jaiotako tokia inguruan dagoen ibaiarekin dute lotura, eta handik hartu zuen taldeak izena. Literalki ondorengo esan nahi du: Wai-o-taikiren ondorengoak.

Taldekideek instrumentu indigenak erabiliko dituzte euren musiketan, eta herrialdeko kultura-aberastasunean oinarritutako kanta eta dantzak eskainiko dituzte



Haritz EDT (Elgoibar)

Inork ez zuen gogoratzen Axuribeltza Jaiurrietako nesken dantza 1969an. Marian Arregi eta Juan Antonio Urbeltz Zaraitzuko adinekoei galdezka aritu ziren, baina eskuartean zuten partituraz aparte, ez zuten besterik aurkitu. Inguruetako herrietako dantza tradizioetan oinarrituta birsortu zuten dantza, eta aspaldikoa delakoan dantzatzeko dute Jaiurrietako neskek. Haritz dantza taldeko neskek jaialdiaren lehen zatian dantzatzeko dute.

Zaraitzun bertan, Otsagabian egiten diren dantzak eskainiko dituzte taldeko mutilek. Pasacallea, Jota, Modorro, Katxu-



txa...Otsagabiako dantzariarekin eurekin prestatu dituzte dantza horiek. Eta jaialdiari amaiera emateko, Lapurdiko dantzak egingo dituzte: Makeako sokadantza, Ximple, Marmutx, makildantza, Gabota...

Bihar jokatuko dute Azkarateko Igoera, eta aurten, berrikuntzak izango ditu

Maalako Jaiean barruan, Azkarateko Igoera antolatu du biharko Maalako Lagunak Ostalaritza taldeak, Mintxeta AT, Gure Bide eta Lagun Taldea Txirrindulari taldearen laguntzaz. Urtero bezala, korrika eta bizikleta lasterketak prestatu dituzte, eta partaideek eurek aukeratu ahal izango dute zein modutara egin nahi dituzten Maalatik Azkaraterako 5,9 kilometroak.

11:00etan hasiko da bizikleta proba, baina aurten Kalebarren Plazatik abiatuko dira partideak, eta Maalaraino denek elkarrekin egingo dute bidea. Hara iristean hasiko da benetako lasterketa. 12:00etan korrikalarien txanda izango da.

Parte hartu nahi duenak Txarriduna edo Iriondo tabernetan eman dezake izena, eta egunean bertan lasterketa hasi aurretik Gabi jatetxean ere egongo da izena emateko aukera. Horrez gain, www.kirolprobak.com webgunean ere egin daiteke izenematea. Partaide bakoitzak sei euro ordaindu beharko ditu, eta prezio horretan proba bakarra edo biak egiteko aukera izango da.

Proba amaieran salda eta txorizoa banatuko dituzte antolatzaileek. Segidan, sa-



riak banatuko dituzte, eta erosketa-txeak ere zozkatuko dituzte.

Dokumentala

Bizikletan, Aitor Hernandezek dauka errekorra 15:05ean, eta korrika berriz, David Slater britaniarrak 1981ean ezarritako denbora da onena: 20:40.

Eta, hain zuzen ere, errekor horri bu-

ruzko dokumentala egiten ari da Slaterren seme James. Haren emaztea soinu teknikaria da, eta Charlie Herranz Londresen bizi den irudi-zuzendari bilbotarra daude proiektu honen atzean. James Slater bera ere Elgoibarren izango da egunotan, eta 1981eko korrika proba ikusten egon ziren herritarren testigantzak eta orduko irudiak lortzen saiatuko da.

Gaur jokatuko da Mendaroko emakumeen frontenis txapelketako finala

Mendaroko emakumezkoen frontenis txapelketa iritsi da amaierara. Sei bikotek hartu dute parte guztira, eta, Edurne eta Maite Olazabal eta Iratxe Mendikute eta Josune Manteca iritsi dira finalera. Gaur jokatu dute azken partida, 20:00ak aldera. Aurrez, Pilota Eskolako umeez eskuz banakako eta binakako partidak jokatu dituzte.




Edurne Olazabal, Josune Manteca, Maite Olazabal eta Irati Mendikute.

Roketxe eta Water de Munich iritsi dira Futbol7 txapelketako finalera

Bailarako Futbol7 txapelketako finalak gaur arratsaldean jokatu dira Eibarren, Unbeko kirolgunean. Roketxe eta Water de Munich taldeak iritsi dira finalera. Partida, 20:00etan hasiko da. Aurretik, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partida jokatu dute La sisha mecánica eta Más que Oloso taldeek. Partida hori 19:00etan hasiko da.

Ainhoa Lendinezek bigarren egin du Marimurumendi mendi maratoian, eta Joseba Elustondok 'Ehunmilak' proba amaitu du

B easainen hasi eta amaitu ziren iraupen luzeko hiru mendi proba jokatu ziren joan zen asteburuan: Ehunmilak, Goierriko Bi Handiak eta Marimurumendi. Ainhoa Lendinezek azken honetan hartu zuen parte, eta bigarren helmugaratu zen. Bere esanetan, bizitzan egin duen lasterketa "politena" eta "onena" izan zen. Eva Fernandez kantabriarrak eta Lendinez berak hartu zuten lasterketaren burua hasieratik eta aurreneko postu horietan mantendu ziren biak azken kilometroetara arte. Lendinezek indarrez ikusi zuen bere burua 38. kilometroan, proba amaitzeko lau kilometroren faltan, eta Fernandezen pareraino iristeko ahalegina egin zuen. Lortu zuen liderrarekin bat egitea eta baita atzean lagatzea ere. Hala, 41. kilometrotik lehen postuan pasatu zen Lendinez, baina biak i-go zitzaizkion orduan. 4:37:50 denborarekin bigarrena izan zen.



Ehunmilak

241 lagun batu ziren barixaku arratsaldean, Beasainen, Ehunmilak 168 kilometroko mendi lasterketaren irteeran, eta 150 lagunek lortu zuten proba amaitzea, tartean Joseba Elustondo elgoibartarrak. 75. postuan sailkatu zen Elustondo, 35:48:42ko denborarekin. Iban Fernandezek, ordea, ezin izan zuen proba amaitu.

Goierriko Bi Handiak proban, bestealde, Elgoibarko 13 korrikalari iritsi ziren

amaierara: Gorka de la Horra (12:09:08), Josu Idiakez (14:11:01), Angel Quintana (16:23:52), Lander Azpiazu (16:28:36), Mikel Arosa (17:40:49), Julen Salaberria (17:40:51), Haritz Arribillaga (17:40:52), Fernando Calvo (20:48:23), Jon Peli Uriguen (21:02:01), Ekaitz Baskaran (21:02:03), Izaskun Hurtado (19:58:04), Ane San Martin (20:48:32), Arantza Beristain (21:02:10).

Gipuzkoako giza-proba txapelketako finala jokatuko dute bihar Sigman, 18:00etan hasita



Gipuzkoako giza proba txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten domekan Errezilgo Gernika plazan. Deba, Itziar, Berrobi eta Mendaroko taldeek hartu zuten parte, eta hogeita minutuan aritu ziren lanean 950 kiloko harriarekin. Itziar Andutz taldeak irabazi zuen proba eta Mendaroko TopeNatiok taldeak lortu zuen bigarren postua. Emaizta honi esker, ligaxka eran jokatzen diharduten txapelketako lidergoa eskuratu du Mendaroko taldeak. Finala, bihar, uztailaren 18a, jokatuko dute, Elgoibarren.

IMH kiroldegiko kantxa alokatzeko aukera dago

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du oraindik badagoela aukera IMH kiroldegiko kantxa alokatzeko. Interesatuak Olaizaga kiroldegiko harreratik pasa daitezke, aurreko astean egindako zozketaren ondoren libre gelditu diren ordutegiak ikusi eta kantxa alokatu ahal izateko. Momentuz libre dagoen ordutegia hau da: asteazkenetan, 19:15ean. Irailean hasiko lirateke kantxa erabiltzen eta prezioa 40 euro orduko da.

LANA.....**Eskaerak**

Neska eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka edo interna.
☎ 635 189 294

Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. Esperientziaduna.
☎ 632 564 679

Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, egun osoz edo orduka. Lehen sorospen arretan eta sukaldean esperientziaduna.
☎ 631 361 762

Emakumea eskaintzen da lanerako. Esperientzia dauka adinekoak zaintzen.
☎ 626 580 592

Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Portalak garbitzen egingo luke lan. Gidabaimena dauka.
☎ 689 571 882

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna.
☎ 631 832 767

Neska eskaintzen portalak garbitzeko.
☎ 617 571 210

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko.
☎ 631 832 767

Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Psikologia ezagutza dauka. Garbiketa lanak ere egiten ditut etxean, tabernetan, elkarre gastronomikotan, portaletan. Lanaldi osoan, orduka...
☎ 631 098 995

Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Edozein lan egiteko prest.
☎ 602 107 411

Gizona eskaintzen da, edozein lan egiteko. ☎ 632 931 627

Gizona eskaintzen da, edozein lan egiteko. ☎ 632 234 087

Mutila eskaintzen da, edozein lan egiteko.
☎ 666 836 789

Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko zein umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka.
☎ 619 041 821 / 943 744 033

Emakumea eskaintzen da lanerako, interna edo orduka. Sukalde laguntzaile lanetan, biltegiko lanetan, garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia.
☎ 673 955 298

Neska eskaintzen da lanerako, interna edo orduka. Sukalde laguntzaile lanetan, biltegiko lanetan, garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia.
☎ 632 510 102

Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna moduan ere bai.
☎ 632 882 532

42 urteko emakumea naiz eta lan egin nahi nuke. Nagusiak zaintzen lan egin izan dut eta erreferentzia onak dauzkut Umeekin ere oso ondo moldatzen naiz. Interna moduan lan egiteko ere prest.
☎ 642 636 525

Neska eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.
☎ 667 897 002

Eskaintzak

Jaietan Elgoibarko Taberna batean lan egiteko zerbitzaria behar da. Esperientziaduna. Bidali CV: kamareroajaiak@outlook.es helbidera. Zerbitzari euskalduna eta sukalde laguntzailea behar dira. Esperientzia. CV bidali Gautxo tabernara.

ETXEBIZITZAK.....

Pisua edo buhardilla bat hartuko nuke alokairuan.
☎ 631 098 995

Etea hartuko nuke alokairuan, Mendarón.
☎ 602 107 411

BESTELAKOAK.....

Ninfa txoriak ihes egin zigun hilaren 9an, 21:00ak aldera, Maala inguruan. Kakatua espezie txikiena da, Blue izena dauka eta topatzen duenari eskertuko genioke deitzea oso estimutan geneukan eta. ☎ 619 867 218



Lerun industrigunean, Netto BM hipermerkatuan dagoen Rosa liburudendan loteria saltzeko lizentzia eskualdatzen da, gaixotasunagatik. Harremanetarako: rosadaquinta22@hotmail.com
☎ 680 321 479

Sofa salgai. Ia berria. Tela iragazgaitza.
☎ 628 115 677

OSPAKIZUNAK.....

1935ean jaiotako bazkaria irailaren 26an. 12:30ean elkartuko dira Maalako elizan, eta 14:00etan, bazkaria Txarridunan. 55 euro ordaindu behar dira irailaren 15erako, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 22 0071131225

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net

NORFO SL

Gure bizilagunaren txakurak zaunka pasatzen du eguna jabea etxean ez duen aldiro. Bizilagun bat kexatu izan da behin baino gehiagotan, baina ez da ezer konpondu. Zer egin genezake?

Komunitateko presidenteari jakinarazi beharko diozue, presidenteak baduelako txakur-jabe horri kontu hartzeko aukera, bai bere ekimen propioz eta baita bizilagun batek edo gehiagok hala eskatu diotelako. Presidenteak eska diezaiok beraz behar diren neurriak hartzeko eragiten ari diren kalte hori saihesteko.

Ohartarazpen horretan presidenteak argi esan beharko dio arazoa konpondu ezean bizilagunek epaitegira jotzeko aukera dutela. Hori eginez gero, epaileak erabakiko du zein neurri hartu behar diren bizilagunek gehiago sufri ez dezaten, eta gainera, txakur horren zaunkak eragindako kalteak larritzat jotzen baditu, biktimei kalte-ordaina ematera ere zigortu ditzake txakur-jabeak. Hala ere, eta nahiz eta legeak hori guztia jasotzen duen, praktikan oso zaila da txakur baten zaunkak halako prozedimendu bat abiarazteko bezain larritzat jotzea. Udal ordenantzetan begiratzea duzu onena, zeinbat Udalek zehaztuta dutelako gai honen inguruko araudia.

AHOLKUA: Arrazoizkoena txakur jabearekin hitz egin eta irtenbide bat adostea izango da, edo guxtienez, traba edo molestia horiek saihesteko neurriak bilatzea.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

administradores Centro Vasco de Estudios y Asesoramiento de Planeamiento y Política Administrativa y Gestión Económica



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **June**, uztailaren 21ean 7 urte egingo dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Nagore eta Unairen partez.



Zorionak, **Naiara!** abuztuaren 17an 5 urte! Muxuak Elgoibarko eta Andoaingo senideen partez.



Lau urte gure txiki-xak! Zorionak, **Irati** eta patxo handi bat etxe-kuon eta batez ere Noraren partez!



Zorionak, **Jon** zure bigarren urtebetetzean etxeko guztien partez eta bereziki Eiderren partez.



Zorionak etxeko **hurrengo ostegunean** 6 urte handi beteko dituzulako. Etxekoan partez.



Zorionak, **Mikel**, hurrengo ostegunean 6 urte handi beteko dituzulako. Etxekoan partez.



Zorionak, **Axi txiki!** Sei urte handi dagoeneko. Familia osoaren partez.



Zorionak, **Danel**, uztailaren 16an zure lehen urtebetzea izan zelako. Familia osoaren partez.



Bihar zortzi urte beteko dituzulako, jator-jatorra zare-lako eta ilargiraino eta bueltan maite zaitugulako, zorionak, **Pello!**



Zorionak, **An-drea**, Agirre-Monreal sendiaren partez.




Zorionak, **Maria**, astelehenean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi-handi bat, familia osoaren partez.



Zorionak, **Galdel!** Gaur, 4 urte! Ondo pasa! Ez ahaztu txokolatezko pastel zati bat gordetzen anaia Eñautentzat.



Zorionak, **Laiene**, zure 8. urtebetetzean! Muxuak guraso eta neba Haitzart eta Zugatzen partez.



Zorionak, **Aimar, Oihan eta Izar** zuen urtebetetzean. Ondo pasa!



Zorionak **uztailako gure altxorre!** Txokolatezko muxu asko biontzat.




Zorionak, **Irati eta Maddi**, uztailaren 26an 12 eta 4 urte egingo dituzulako. Patxo pila bat.




Uztaila **Juneren** 5. urtebetetzean hasi gendun eta **Lukenen** 2. arekin bukatuko dogu. Zorionak bixori! Etxekoak.




Zorionak, **Enara eta Leire**, zuen bigarren eta bosgarren urtebetetzean. Familiako guztien partez.




Zorionak, **bikote!** Egun zoragarria pasa.



Zorionak, **Markel eta Paula!** 7 urte dagoeneko! Ondo pasa! Etxekoan, eta bereziki Lucia eta Vegaren partez.



Lier eta Mikel, 5 urteko pirata maitagarri hauei, zorionak bihotz-bihotzez!!!



Zorionak, **Urtzi eta Haizea** uztailaren 29an 9 urte egingo dituzulako. Etxekoan eta bereziki, amamaren partez.

Gaztelekua

Gaur, ostirala, udako oporrak hartzen ditugu Gaztelekuan. Irailaren 9an itzuliko gara. Ondo pasa udaran!

Ludoteka

Eskerrik asko ikasturte honetan Ludotekan parte hartu duzuen guztioi! Irailaren 7an irekiko dugu berriz. Ondo pasa oporretan!

Aire libreko zinea (Kalegoen plazan, 22:30)

'X-Men'
17, barixakua

'Lluvia de albóndigas'
18, zapatua

'La vida secreta de Walter Mitty'
25, zapatua

'Las aventuras de Peabody y Sherman'
26, domeka

'Lucy'
30 eguena

'Epic, el mundo secreto'
31, barixakua,

18 ZAPATUA

18:00 Gipuzkoako giza proben finala. Sigmako probalekuan.

24 BARIXAKUA

22:30 Nazioarteko Folklore Jaialdia. Olaizaga kiroldegian.

26 DOMEKA

Sargoateko erromeria

11:00 Meza

11:30 Salda eta txorizo banatzea

Jarraian, bertsolariak: German Meababasterretxea eta Ziarda) eta trikitilariak (Xabier eta Ekain).

12:00 Motoserra erakustaldia Juanito Altzaterekin.

31 BARIXAKUA

19:00 Dantzaldia. Eguren orkestrarekin, Maalako parkean.

18 ZAPATUA

Koadrilen Eguna

12:00 Mozorro desfilea. Bizi Poza txaranga-ekin, Herriko Enparantzan.

13:00 Paella lehiaketa. Frontoian.

14:30 Herri bazkaria.

Segidan, koadrilen arteko jokoak.

18:00 Goitibeherak. Azpilgoetako elizatik.

23:00 Kontzertua. Moonlight eta Gatibu taldeekin. Herriko Enparantzan.

Ondoren, DJ festa.

19 DOMEKA

Zahartzaroari omen eta haurren eguna

11:00 Kalejira, Elgoibarko dultzaineroekin.

11:00 Gazteen pintura lehiaketa. Ikastolako jolastokian.

11:30 Haurrentzako jolasak. Ikastolako patioan.

12:00 Meza nagusia. Frontoian.

Ondoren, euskal dantzak. Mendaroko trikitixa taldearekin.

Segidan, txu-txu tren.

14:00 Gaztetxo bazkaria. Frontoian.

14:00 Omenduen bazkaria. Aizpen.

Segidan, txu-txu tren.

16:00 Haurrentzako jolasak. Ikastolako jolastokian.

18:00 Umeen danborrada. Bizi-Poza txaranga-ekin.

20:00 Sari banaketa.

Segidan, DJ Mikel.

24 BARIXAKUA

17:30 Futbito txapelketako finalak. Gazte Asanbladak antolatuta.

18:30 Salbea. Garagartzako elizan. Udale-

txetik joango dira, txistulariekin.

19:30 Txupinazoa. Katasorginaren jaitsiera eta kalejira.

20:00 2014an jaiotako umeei ongi-etorria. Udaletxeko pleno aretoan.

24:00 Koadrilen arteko playback lehiaketa.

Ondoren, Kontzertua. Gozategi taldearekin, pijama gaua dantzaldia.

Jarraian, diskoteka.

25 ZAPATUA

Santixao eguna

11:30 Haurrentzako jolasak. Ikastolan.

12:00 Meza Nagusia. Garagartzako elizan.

12:30 Musika saioa. Voces Riberas taldearekin, frontoian.

17:00 Haurrentzako jolasak. Ikastolan.

18:00 Dantza ikuskizuna, Alurr taldearekin.

Ondoren, kalejira. Elgoibarko dultzaineroekin.

22:30 Nagusien danborrada. Mauxitxa txaranga-ekin.

Ondoren, dantzaldia. Lisker taldearekin.

26 DOMEKA

Santana Eguna

10:30 Prozesioa. Garagartzatik Santanara, txistulariekin.

11:00 Meza. Santanako ermitan.

Ondoren, erromeria. Ostolaza eta Andonegi trikitilariarekin, eta Egaña eta Lizaso bertsolariarekin.

18:00 Herri-kirolak. Gipuzkoako lehen mailako aizkolari txapelketa finala.

19:30 Dantzaldia. Joselu Anaiak taldearekin

22:30 Katasorginaren igoera.

GUARDIAK: Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

09:00 - 22:00

UZTAILA

17 Barixakua ORUESAGASTI

18 Zapatua YUDEGO

19 Domeka YUDEGO

20 Astelehena ORUESAGASTI

21 Martitzena BARRENEXEA

22 Eguaztena IBAÑEZ

23 Eguena GARITAONANDIA

24 Barixakua ETXEBERRIA

25 Zapatua BARRENEXEA

26 Domeka ETXEBERRIA

27 Astelehena YUDEGO

28 Martitzena ORUESAGASTI

29 Eguaztena BARRENEXEA

30 Eguena IBAÑEZ

31 barixakua IBAÑEZ

ABUZTUA

1 Zapatua ETXEBERRIA

2 Domeka ETXEBERRIA

3 Astelehena FERNANDEZ

4 Martitzena YUDEGO

5 Eguaztena ORUESAGASTI

6 Eguena ETXEBERRIA

7 Barixakua IBAÑEZ

8 Zapatua GARITAONANDIA

9 Domeka GARITAONANDIA

10 Astelehena ETXEBERRIA

11 Martitzena FERNANDEZ

12 Eguaztena YUDEGO

13 Eguena ORUESAGASTI

14 Barixakua ETXEBERRIA

15 Zapatua IBAÑEZ

16 Domeka IBAÑEZ

17 Astelehena GARITAONANDIA

18 Martitzena BARRENEXEA

19 Eguaztena FERNANDEZ

20 Eguena GARITAONANDIA

21 barixakua ORUESAGASTI

22 Zapatua BARRENEXEA

23 Domeka FERNANDEZ

24 Astelehena IBAÑEZ

25 Martitzena GARITAONANDIA

26 Eguaztena BARRENEXEA

27 Eguena FERNANDEZ

28 Barixakua GARITAONANDIA

29 Zapatua ORUESAGASTI

30 Domeka ORUESAGASTI

31 Astelehena BARRENEXEA

IRAILA

1 Martitzena IBAÑEZ

2 Eguaztena GARITAONANDIA

3 Eguena ETXEBERRIA

4 Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera

GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)

Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384

MAALAKO JAIAK

Uztailak 18, 22 eta 23

18 ZAPATUA

11:00 Azkaratera igoera bizikletaz. Kalebarraren plazatik.

12:00 Azkaratera igoera korrika. Maalatik.

22 EGUAZTENA

12:00 Meza. Maalako elizan.

19:30 Umeentzako jolasak eta Niala magoa.

20:00 Kontzertua. Musbika hari taldearekin, Maalako elizan.

23 EGUENA

12:00-15:00 / 19:00-22:00 Gilda lehiaketa. Gabi, King-Kong, Xagua, Ilunpe, Malape, Viento Sur, Txarriduna eta Iriondo tabernetan.

19:30 Marrazki lehiaketa eta Pantxika eta Txinparta bikotearekin magia eta musika ikuskizuna.

SANTUMOTZ EGUNA

Abuztuak 2

2 DOMEKA

11:00 Meza. Santumotz lautadan.

Ondoren, salda eta txorizo banatzea.

Segidan, bertso saioa. Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariekin.

12:30 Herri kirolak. Tarteka Baltzola anaiak trikitilariak alaituko dute goiza.

14:30 Bazkaria. San Pedro jatetxean. Izena emateko: 943 740 010. Segidan, bertso saioa eta erromeria.

SIGMAKO JAIAK

Uztailak 25 eta 26

25 ZAPATUA

9:00 Txapliguak jaurtitzea.

10:00 Meza kaperan, auzoan hildakoen omezez.

11:00 Pilota txapelketen finalak.

12:00 Luntxa frontoian.

14:00 Pilota txapelketako sari-banaketa.

16:30 Mus txapelketa eta igel toka txapelketa.

17:30 Gorrii eta bere animaliak.

20:30 Parrilla jana, karpan.

Segidan, musika.

26 DOMEKA

12:00 Aire libreko marrazki lehiaketa.

16:00 Umeentzako jolasak. Itsulapikoak, sokatira, zaku-karrerak, globo jolasak... Frontoian.

19:00 Txokolatada karpan.

SALLOBENTEKO JAIAK

Abuztuak 7, 8, 9 eta 10

7 BARIXAKUA

19:00 Kanpai jotzea eta suziriak.

Segidan, errosarioa eta meza. Auzoko hildakoen alde.

20:00 Bakailao jana, bereziki auzoko aitonaonei eskainia.

Afalostean, bertsolariak. Uxue Alberdi eta Anjel Mari Peñagarikano.

23:00 Bolo saioak.

23:30 Erromeria. Fun & Go taldearekin.

8 ZAPATUA

16:30 Haurrentzako jolasak, soinu jotzaileek girotuta.

Ondoren, Niala magoa.

Jarraian, txokolate jana.

Segidan, zezentxo eta pottokak.

23:30 DJ festa, Joseina Etxeberriarekin.

Gauerdian Bolo txapelketa.

* Maalatik Sallobenterako autobus zerbitzua egongo da, 20:00etatik aurrera.

9 DOMEKA

10:30 Jaieroko elizkizuna

12:00 Sanlotloia.

- Sallobentetik Txarridunako errotondaraino korrika.

- Errotondatik Sallobentera bizikletaz.

- 3 boloren jaurtiketa. Botatako txirlo bakoitzeko minutu bat kenduko zaio aurretik egindako denborari. Gehienez, 9 minutu.

Saria: Norberaren pisua + bizikletarena euran.

rotan, emakumeentzat zein gizonentzat.

14:30 Lagunarteko bazkaria.

18:00 Herri kirolak. Aizkolariak: Mikel Larrañaga Gipuzkoako Txapelduna, eta Eneko Otaño. harri-jasotzaileak: Jon Unanue 'Goenatxo III.' eta Xabier Aranburu 'Gusta'.

22:00 Bolo saioak.

Ondoren, erromeria. Izer eta Narbaizarekin.

10 ASTELEHENA

11:00 Meza nagusia

Haritz dantza taldearen aureskua, musikari eta bertsolariekin.

Ondoren, salda eta txorizoa.

AZKUEKO JAIAK

Abuztuak 15, 16 eta 17

15 ZAPATUA

17:00 Kanpai jotzea eta suziriak.

18:30 Errosario santua. Auzoko ermitan.

19:00 Emakumezkoen bolo jaurtiketa.

19:30 Untxi askatzea.

Jarraian, zezentxo eta pottokak.

22:00 Trikitilariak. Jon Ostolaza eta Rakel Pujana.

Jarraian, bolo jaurtiketa.

16 DOMEKA

San Roke Eguna

9:00 Suziriak.

11:00 Meza nagusia. Haritz dantza taldearen erakustaldia.

Ondoren, asto proba erakustaldia. Etxabe (Aizarnazabal) eta Altabilla (Oikia).

18:00 Haurrentzako jolasak eta unxi askatzea. Txokolatea banatuko da bertaratutako artean.

Segidan, zezentxo eta pottokak.

22:30 Erromeria. Naiara Plaza eta Eneritz Kaltzakortarekin.

17 ASTELEHENA

San Roke Txiki Eguna

9:00 Suziriak.

11:00 Meza. Auzoko hildakoen alde.

Ondoren, txapel jaurtitzea.

Jarraian, unxi askatzea.

14:00 Bazkaria, Baltzola Anaiak trikitilariak girotuta.

18:30 Idi erakustaldia. Altuna (Aizarnazabal) eta Patxi Aranbarri (Urretxu).

Ondoren, unxi askatzea.

Segidan, zezentxo eta pottokak.

22:30 Erromeria. Baltzola Anaiak trikitilariak.

01:00 Errifaren zozketa.



Iñigo Lamelas



Jose Luis Azpillaga



Zer arraroa egiten zaidan Kalegoen Plaza jenderik gabe eta Txankakoako arrapala umerik gabe ikustea. Seguru asko, goizean goiz aterata egongo da argazkia; izan ere, ni arratsaldean lanetik irten eta autobusa hartzera joateko hortik pasatzen naizenean umez josita egoten da aldapa hori, denak patinete, patin, skate eta era guztietako tramankuluen gainean maldan behera joateko toki estrategikoen bila.

Ume horiek ni izan nintzen haurra ekarri didate akordura, zortzi bat urterekin edo Azpeititik Elgoibarrera, aitarien lana zela eta, bizitzera etorri ginen garaikoa. Nik 11 urte egin berri ni-tuela joan ginen atzera ere Azpeitira. Elgoibarko egonaldiaz hainbat txatal ditut akorduan, flash modukoak. Akordatzen naiz eskola publikoetako Don Franciscoren bibotearekin, Bene dei-

tzen genion erdaldun astapotroak habia batetik hartutako arrautzak lagun bati buruan txikitu zizkionekoa, Juantxo lagunaren bular beltzarana eta erdi-erdian hazi eta noizean behin kendu behar izaten zioten haragi zati arroxka, Jose Cruz familiarekin Alemania bizitzera joan zenekoa, Iñakiri eskolako hartxintxarrezko jolastokian belauneko azala nola irekin zitzaion, auto-txokeetan aitarekin nenbilela eskumuturra hautsi zitzaidanekoa, Pilar ikastetxeko futbol partidak eta sotanadun irakasleak... .Ez dakit oroitzen guztiak egiazkoak edo baten batzuk asmatuak diren. Agian denetik izango dute. Gainera, froga grafiko bakarra dut nik garai hartakoa: Pilar ikastetxeko futbol-txapelketako taldearen argazkia. Orain desberdina da: haur guztiek dute argazki eta bideo mordoa.

Ume banintz berriro! Oraintxe jenderik ez dagoela aprobe-txatuko nuke maldan behera ziztu bizian joateko patin baten gainean. A zer gozatua!

'Zer arraroa egiten zaidan Kalegoen Plaza jenderik gabe eta Txankakoako arrapala umerik gabe'



Boni Ipiña Usabel

2014ko uztailaren 23an hil zen, 85 urte zituela.
I. urteurreneko meza uztailaren 24an, barixakua, izango da
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik



Martin Lariz Muguruza

2015eko ekainaren 30ean hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Sebastiana Larrañaga Artetxe

2007ko uztailaren 10ean hil zen, 99 urte zituela.

***Ez zekien paperean irakurtzen eta idazten.
Hegoaizea, zelaia, xirimiria, animaliak
eta Arno irakurtzen zituen,
eta boligrafoarekin beharrean
lanarekin idazten zuen.***

Segi gogor.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Ignacio Zubia Arregi Ramona Gorriti Aranberri



***Orain zuen bideetatik
doa gure bizitza
zuentzat gure
maitasunezko hitza.***

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

jai alai



25€

Sanbartolomeetarako menu berezia!

Bazkariak eta afariak ematen ditugu.

Ordutegia: Astelehenerik ostegunera: 07:00-21:30

Ostiraletan: 07:00-23:00

Larunbatetan: 10:00-23:00

Igandetan: 10:30 -18:30

Erreserbak: 943 741 244 / 627 396 492



ELGOIBAR

Pol. Olaso, Olasope 1
karakatejateixea@hotmail.com